

HAUR2DE: GURASOEN EMOZIOAK, HAURREN ETORKIZUNAREN OINARRI.

1. PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Inoiz gelditu eta galdetu al diozu zeure buruari nola bizi dituzten emozioak guraso bihurtzeko bidean dauden pertsonak? Zer bizitzen den haurdunaldiaren, adopzioaren edo erditu ondoren isilpean? Eta, batez ere, nola eragiten dieten emozio horiek iristear dagoen haur txikiari?

Emozioek badute pisua, benetakoa eta sakona. Ba al dakizu ama batek haurdunaldian bizi dituen bizipenek eragina izan dezaketela seme-alabaren garapen emozionalean? Eta jaio aurretik ere, estresa edo antsietatea ume baten burmuinean, oroimenean eta ikasteko gaitasunean txertatu daitezkeela?

Ikerketek argi diote: jaio aurreko stres-maila altuak edo haur goiztiartasuna bizi duten hurrek %7 arrisku handiagoa dute emozio-arazoak edo jokabide-desorekak garatzeko. Aldi berean, lau emakumetik batek aldaketa emozional biziak izaten ditu ama bihurtzean, eta %20k erditze ondoko depresioa jasaten du. Eta hala ere, oso gutxitan galdetzen diegu benetan nola dauden, nork entzuten dituen edo nork eskaintzen dien arnasa, babesa eta ulermena.

Horixe da HAUR2DE-ren bihotza. HAUR2DE-n emozioak zaintzea osasun fisikoa zaintzea bezain garrantzitsua dela sinesten dugu, bai haurdunaldian, bai adopzio prozesuan, bai erditu ondoren ere. Haurdunaldi emozionalki osasuntsu batek ez baitu soilik ama edo aita babesten: etorkizuneko haur baten ongizatea eraikitzen du.

Hori dela eta, HAUR2DE jaio zen, hurrengo helburu hauek dituen espazio bat eskaintzeko: entzutea, informazioa eta laguntza eskaintzea, istorio eta emozio bakoitzari ahotsa ematea eta etapa zoragarri baina askotan konplexu honetan bidelagun izatea.

Guk ez ditugu emozioak xehetzat hartzen; bizitza osasuntsu baten lehen urratsa direla uste dugu. Eta horregatik sortu dugu espazio seguru, gertuko, profesional eta emozional hau, non emozio bakoitzak bere lekua duen eta istorio bakoitzak merezi duen arreta jasotzen duen.

Gaurko emozioak zaintzea biharko oreka ereitea da. Eta bide horretan, ez zaude bakarrik: HAUR2DE zurekin dago.